



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 29a

60. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-24/CCO-00011. “Barañaingo Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-24/CCO-00011. “Barañaingo Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Barañaingo Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Adieraztea Barañaingo Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinarren gainean dagoela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**AURKIBIDEA****ORRIALDEA**

I. SARRERA .....	4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA .....	4
III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN .....	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN.....	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK .....	5
VI. BARAÑAINGO UDALAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK .....	7
1. GEHIGARRIA. BARAÑAINGO UDALA.....	8
1.1 Informazio orokorra .....	8
1.2. Egindako jarduera .....	9
2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	10
3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK .....	11
3.1 Udaleko langileak.....	11
3.2 Udalaren kontratazio publikoa.....	14
3.3 Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak.....	16
3.4 "Next Generation EU" funtsak .....	19
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK .....	20
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	22

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2023ko bere jarduketa-programari jarraikiz, langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloan Barañaingo Udalarari 2022ko ekitaldian aplikatzekoa zaion legeria betetzearen fiskalizazioa egin du.

Landa-lana 2023ko urritik abendura egin zuen zenbait auditoria-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Jarduketa horren emaitzak Barañaingo Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, alegazioak aurkeztu egin ditu Barañaingo alkateak. Alegazio horiek txostenean txertatu dira, Ganbera honek emandako erantzunarekin batera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Barañaingo Udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitzaren biribiltzea, eta ez datu biribilduen batura.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iriztea ea honako gai hauei dagokienez Barañaingo Udalak 2022ko ekitaldian egindako jarduerak, alderdi esanguratsu guztietan, bat datozen aplikatzekoa den arau-esparruarekin:

- Langileria: alderdi orokorrak, nominetako ordainsarien analisia eta enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren berrikuspena.
- Kontratazio publikoa: munta txikiko kontratueterako araubide bereziko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak.
- Zuzeneko emakidaren araubidezko dirulaguntzak.
- Udal talde politikoentzako diru-zuzkidurak.

Era berean, Udalak emandako datuei heldurik, zenbatu egin ditugu Next Generation EU funtsetatik jasotako dirulaguntzak eta horiei lotutako gastuak.

Bestalde, jarraipena egin diegu "Barañaingo Udala, 2017" gure txostenean jasotako gomendioei, zeinak lehenago aipatutako gaiei buruzkoak baitira.

Udalaren mendeko erakunde autonomoak eta fundazioa ez daude sartuta fiskalizazio honen norainokoan.

Fiskalizazioaren norainokoak barne hartzen ditu txosten honen 3. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldia da, baina beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztapenak ere egin dira, beharrezkoak direnak ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

### III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion esku-menak erabiliz, legezketasun-fiskalizazio bat egin du Barañaingo Udalaren 2022ko ekitaldiko langileria, kontratazio administratibo eta dirulaguntzei buruz.

Gure ustez, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, gure txostenaren “Iritziaren oinarria, salbuespenekin” atalean azaldutako zertzeladen eraginengatik izan ezik, langileen, kontratazioaren eta dirulaguntzen arloan Barañaingo Udalaren 2022ko ekitaldiari dagozkion jarduera aztertuak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

### IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

Gabeziak aurkitu ditugu kontratazio publikoari dagokionez, ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetako 2,34 milioi eurori –hau da, halako gastuen guztizko bolumenaren ehuneko 45–eragiten dietenak. Zehazki, txosten honen 3.2 gehigarrian azaltzen den moduan, Udalak:

- 1,54 milioiko gastua egin zuen 16 kontratistarekin, hainbat prestazioengatik, kontratuen balio zenbatetsiaren arabera legez eskatzen diren lizitazio-prozedurak bete gabe. Zenbatekoaren ehuneko 78 kontratista bakar bati dagokie; elektrizitate- eta gas-horniduretarakoari, alegia.

- Guztira, 759.381 euro gastatu zituen kontratu-euskarri egokirik gabe bost kontratistari egingdako prestazioetan. Hain zuzen, kontratu horiek mugaeguneratuta zeuden, eta ez dago arrazoirik, horiek berriz lizitatu ez izana justifikatzen duenik. Zenbatekoaren ehuneko 82 garbiketa-kontratu bati dagokio.

Fiskalizazioa egin dugu kanpo-kontrolako erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz eta, zehazkiago, lege-betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 400 arauari jarraituz, bai eta kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoei (GPF-OCEX) jarraituz ere. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean hain zuzen ere.

Lege-betetzeari buruzko gure fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion etika-eskakizunekin eta independentzia defendatzearen eskakizunekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure iritzia salbuespenekin adierazteko.

### V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarriak dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko lege-betetzeaz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu betetzeari buruz egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Txosten honetako “Iritziaren oinarria, salbuespenekin” atalean azaldutako alderdiengatik izan ezik, erabaki dugu ez dugula gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako gorabeheraren berririk eman behar.

## VI. BARAÑAINGO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Barañaingo Udalaren Idazkaritzak eta Kontu-hartzaileak bermatu behar dute fiskalizatutako arloetako jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Era berean, Udalaren erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatuko dutenak egindako jardueran ez dagoela ezer legez kanpikorik.

## VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak honako hauek dira: arrazoizko segurtasun bat lortzea 2022ko ekitaldian Udalak gai fiskalizatuetan egindako jardueretan ez-betetze esanguratsurik ez egoteaz, eta betetzeari buruzko fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasuna ziurtasun maila handia da, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik ez-betetze esanguratsu bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Kanpo kontrolako organoen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskalizazio baten atal gisa, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze esanguratsuetarako arriskuak identifikatu eta bali-oesten ditugu, auditoretza-prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta gure iritzia oinarria emateko auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Ez-betetze esanguratsu bat iruzurraren ondoriozkoa denean, hori ez detektatzearen arriskua handiagoa da errearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurraren osagai izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, apropos eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolari itzuri nahia.

- Barne-kontrolako ezagutza muntaduna lortzen dugu fiskalizaziorako, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

- Ebaluatzen dugu prozedurak egokiak diren, bai eta kudeaketa-organismoak emandako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

Erakundearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak eta barne-kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun edozein gabezia esanguratsu. Entitatearen gobernu-organismoari jakinarazi zaizkion gorabeheren artean, zehazten dugu zein izan diren betetzearen fiskalizazioan esanahi handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzako gai giltzarriak.

### VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Langileriari, kontratazioari eta dirulaguntzei buruz eginiko betetze-fiskalizazioko lanaren emaitza gisa, Ganbera honek gomendatzen du:

- *Duten balio zenbatetsia aintzat hartuta munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez izapidetu ezin diren hornidura- eta zerbitzu-kontratu guztiak adjudikazio-prozedura egokiaren bidez lizitatzea eta adjudikatzea.*

- *Kontratazio publikoko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*

- *Dirulaguntzen plan estrategiko bat onestea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, kostu aurreikusiak eta finantzaketa-iturriak.*

- *Udal-taldearen finantzaketaren justifikaziorako araubidea garatzea, bertan zehaztuta bai haien zuzkidura ekonomikoen xedea, bai formazko eta prozedurazko gainerako betekizunak; halaber, Osoko Bilkurari justifikazio-kontuaren berri ematea, gutxienez urtean behin, kontu-hartzaitzak hura fiskalizatu ondoren.*

Beste gomendio gehigarri batzuk jaso ditugu 3. gehigarrian, fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

José Javier García Logroño auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

## 1. GEHIGARRIA. BARAÑAINGO UDALA

### 1.1 INFORMAZIO OROKORRA

Barañain Iruñerrian kokatuta dagoen udalerrri bat da. 1,4 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 19.537 biztanle zeuzkan 2022ko urtarrilaren 1ean.

Udal antolamendua, besteak beste, honako organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkurak, Tokiko Gobernu Batzarrak eta Alkatetzak. Zortzi batzorde informatibo daude.

Udalak bi erakunde autonomo ditu: "Lagunak" Udalaren Kirol Zerbitzua eta "Luis Morondo" Musika Eskola.

Udalak Barañaingo Auditorioa Fundazioa sortu zuen, Udalaren titulartasuneko den arte eszenikoen zentro bat kudeatzeko asmoz. 2022ko maiatzean, Udalak fundazioa desegitea erabaki zuen, ez zelako ekonomikoki bideragarria. Udalak kudeatzen du arte eszenikoen zentroa 2022ko abendutik, eta fundazioaren likidazio- eta desegite-prozesua 2023ko apirilean amaitu zen.

Udalaren eta haren mendeko entitateen datu nagusiak, ekonomiko eta langileei buruzkoak, honako hauek dira 2022ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazioaren sektore publikoa:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2022-12-31n
Udala	18.666.639	17.380.821	147 <sup>1</sup>
"Lagunak" Udalaren Kirol Zerbitzua erakunde autonomoa	2.116.898	2.100.291	16 <sup>2</sup>
"Luis Morondo" Musika Eskola erakunde autonomoa	979.359	979.881	21 <sup>2</sup>
Bateratze-doikuntzak	(469.000)	(469.000)	
<b>Guztira</b>	<b>21.293.896</b>	<b>19.991.994</b>	<b>184</b>

<sup>(1)</sup> Kontu-hartzaileak 2022ko Kontu Orokorrari buruz egindako txostenaren arabera.

<sup>(2)</sup> Udalak emandako informazioaren arabera.

2022an, Udalak 469.000 euro eman zizkien erakunde autonomoei transferentzia arruntetan; horietatik, 389.000 euro musika-eskolara bideratu ziren, eta 80.000 euro, kirol-zerbitzura. Ez zuen kapital-transferentziarik onetsi, baina "Lagunak"-en kirol-instalazioetan inbertsioak zuzenean exekutatu zituen, 137.410 euro egin zutenak.

- Fundazioen sektore publikoa

Fundazio publikoa	Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	Aurrekontu garbiaren al-daketa, ekitaldiko soberakina dela-eta	Udalaren dirulaguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Batez besteko plantilla 2022
Barañaingo Auditorioa Fundazioa <sup>1</sup>	390.354	69.391	300.000 <sup>2</sup>	2.197	80.151	2

<sup>(1)</sup> Enpresa pribatu batek ikuskatutako kontuak.

<sup>(2)</sup> Ondare garbiari zuzenean egotzitako 100.000 euroko kapital-dirulaguntza bat barne.



Udalak 200.000 euroko ustiapen-dirulaguntza eta 100.000 euroko kapital-dirulaguntza eman zizkion fundazioari.<sup>1</sup>

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen bilketa-, kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak. 2022an, Barañaingo Udalak 491.985 euroko gastua aitortu zuen, mankomunitate horren mesedetan egina; horietatik, 432.343 euro eskualdeko hiri-garraioko kuotari dagozkio, eta 59.642 euro, ibai-parkeari.

## 1.2. EGINDAKO JARDUERA

Udalak emandako informazioaren arabera, Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa		Zeharkako kudeaketa	Mankomunitatea
	Udala	Era-kunde autonomoak	Zerbitzu-kontratua	
Argiteria publikoa	X			
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea				X
Bide-garriketa			X	
Uraren ziklo integrala				X
Estolderia				X
Parkeak eta lorategiak	X			X <sup>1</sup>
Gizarte-zerbitzuak	X			
Etxez etxeko laguntzako zerbitzua, etxez etxe otorduak ematekoa eta "Zaintzen duten pertsonak zaintzen" zerbitzua			X	
Kirol-instalazioak	X		X	
Kirola egitea sustatzea	X	X	X	
Bidaia-herri-garraioko kolektiboa				X
Hirigintza	X		X	
Udaltzaingoa	X			
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak <sup>2</sup>	X			
Musika Eskola		X		
Ikastetxe publikoen mantentze-lanak	X			
Berdintasunaren sustapena	X			
Merkataritza ibiltaria	X			
0-3 urtekoen ikastetxeak	X			

<sup>(1)</sup> Ibai-parkea.

<sup>(2)</sup> Barañaingo auditorioa barne hartzen du, Udalak zuzenean kudeatua 2022ko abendutik.

<sup>1</sup> Udalak 250.000 euro jotzen zuten betebeharrak aitortu zituen 2022an, eta horietatik 224.153 euro ordaindu zituen; nolahi ere, fundazioak 200.000 euroko diru-sarrerak aitortu zituen bere kontuetan. 2023ko otsailean, fundazioak 24.153 euro itzuli zizkion Udalari, eta Udalak balio gabetu egin zituen 2022an aitortutako betebeharrei zegozkien 25.847 euro.

## 2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparru nagusia honako hau da:

### **Estatuko araudia**

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

### **Foru araudia eta tokikoa**

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Aurrekontuaren exekuzio-oinarriak.
- Ordenantzak.

### 3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganagera honen ustez txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat gehitu ditugu Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeari begira Ganagera honen ustez beharrezkoak diren gomendioak.

#### 3.1 UDALEKO LANGILEAK

Langile-gastuak 8,38 milioikoak izan ziren, ekitaldian sortutako gastu guztien % 48. Honako taulan ematen da gastu horren xehakapenaren berri:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2022)
Gobernu-organoak eta zuzendaritzako langileak	91.462
Behin-behineko langileak	168.688
Funtzionarioak	2.136.048
Lan kontratudun finkoak	1.201.417
Aldi baterako lan-kontratudunak	1.472.631
Errendimendu-pizgarriak	113.898
Gizarte-kuotak	3.107.464
Gastu sozialak	74.043
Familia-osagarria	11.359
<b>Guztira</b>	<b>8.377.010</b>

#### *Plantilla organikoa*

Udalaren 2022ko plantilla organikoaren behin betiko onespena 2022ko 186. Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean NAO), irailaren 19koan, argitaratu zen.

Gero, plantilla organikoaren aldaketa bat onetsi zen, plantillan sei lanpostu berri sartzeko, zeina 2022ko 262. NAO, abenduaren 30ekoan, argitaratu baitzen. 2023an aurkezturiko gora jotzeko errekurtsio baten ondorioz, sei lanpostu horietako biren sorrera baliogabetu zuen Nafarroako Administrazio Auzitegiak. Udalak aparteko berrikuspen-errekurtsioa jarri zuen baliogabetze-ebazpenaren aurka, baina ez da onartu. Txosten hau egiten ari ginela, ez-onartze horri administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsioa jartzeko epea amaitu gabe zegoen.

Bestalde, 2022ko abenduaren 31ko langileria-zerrenda onetsi egin zen, eta 2023ko 195. NAO, irailaren 18koan, argitaratu zen.

Lanpostuak, 2022aren amaieran indarrean zegoen plantillaren arabera, honako hauek dira:

Sailkapena	2022
Langile funtzionarioak	91
Lan-kontratudunak	42
Behin-behineko langileak	4
<b>Guztira</b>	<b>137</b>

Plantillako lanpostuetatik, ehuneko 66 funtzionario-araubidekoak dira, eta ehuneko 31, lan-kontratudun araubidekoak.

Honako hau zen lanpostuen egoera 2022ko abenduaren 31n:

Langileria	2022
Plantillako lanpostuak	137
Beteta	74
Hutsik	63
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	46
Bete diren lanpostu hutsak	49
Bete diren lanpostu hutsak (%)	78
Bete gabeko lanpostu hutsak	14
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	22

2022aren amaieran, plantillako lanpostuen ehuneko 46 hutsik zeuden; horietatik ehuneko 78 behin-behinekoz beteta zeuden, eta gainerako ehuneko 22 bete gabe zeuden. Behin-behinekotasunaren indizea, behin-behinekoz betetako lanpostuen eta modu finkoan nahiz aldi baterako betetako plaza guztien arteko zatidura gisa kalkulaturik, ehuneko 40koa da.

### Enplegu publikoaren egonkortze prozesuaren azterketa

Enplegu publikoaren egonkortze prozesua aztertu dugu, aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan. Barañaingo Udala, 2022ko azaroaren 24ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, partzialki atxiki zen foru lege honen II. tituluaren aplikaziora.

Gure azterketatik, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Udalak 29 lanposturen egonkortzerako enplegu-eskaintza publikoa onetsi zuen (aurrerantzean, EEP), zeina 2022ko maiatzaren 26an argitaratu baitzen NAO, lege horretarako aurreikusitako epearen barruan, zeina 2022ko ekainaren 1ean amaitzen baitzen.
- EEP horretan sartutako lanpostuetatik 23, merezimendu-lehiaketa bidez beteko dira; eta sei, oposizio-lehiaketa bidez.
- EEPan sartutako lanpostuen lagin bat aztertu dugu eta egiaztatu dugu bete egiten dituztela araudian ezarritako baldintzak.
- Lanpostu horiek betetzeko onartutako deialdiak 2022ko 253. NAO, abenduaren 19koan, argitaratu ziren, lege horretarako aurreikusitako epearen barruan, zeina 2022ko abenduaren 31n amaitzen baitzen.
- Merezimendu-lehiaketan onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda 2024ko otsailean onetsi eta Udalaren webgunean argitaratu da. Oposizio-lehiaketari dagokionez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda 2023ko azaroan onetsi eta webgune horretan argitaratu zen.

Nolanahi ere, egonkortze-prozesua ez da amaitu. Hautapen-prozesu horiek 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko dira, data horretarako bete behar baita lege aurreikusitako helburua; hots, aldi baterako kontratuak egiturazko lanpostuen ehuneko 8ra murriztea.

### Langileria-gastuaren egiaztapenak

2022an Udalaren plantillari aplikatzekoak zaizkion ordainsari-baldintzak plantilla organikoan ezarrita daude batez ere, bai eta langile funtzionarioendako eta administrazio-kontratupeko langileendako akordio kolektiboan (2022-2025 aldirako onetsia) eta langile lan-kontratudunendako hitzarmen kolektiboan (2017-2020 aldirako onetsia eta luzatua) ere.

Akordio horien edukia aztertu ez badugu ere, langileria-gastuen berrikuspen-lana abiapuntu hartuta, horiei buruzko honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Langile funtzionarioendako akordio kolektiboa baliogabetu egin zuen Iruñeko Administrazio-arekiko auzien 1. Epaitegiaren epai batek, akordio hori onestean Udala bere eskumen-eremuaz harago joan zelako. Udalak ez dio errekurtsorik jarri epaiari, eta 2023ko urrian negoziazio-mahaia eratu zen beste akordio bat lortzeko asmoz. Hala ere, baliogabetutako akordioa 2022an aplikagarria izan zen.

- Langile lan-kontratudunendako hitzarmen kolektiboak ez zituen barne hartzen ez eta aipatzen ere aplikatzekoak diren lansari-taulak. 2022an, langile lan-kontratudunen ordainsariak taula bazuaren arabera kalkulatu ziren, baina ez dago jasota taula horiek onetsi eta argitaratu zirenik. Gure fiskalizazioaren ondorioz, langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboaren aldaketa bat adostu da, 2023an aplikatzekoak diren lansari-taulak eranskin batean sartzeko. Lansari-taula horiek koherenteak dira ikuskatutako ekitaldian aplikatutakoekin.

2022ko urrian sortutako nominaren ordainsari-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu, guztira 136 pertsonari dagokiena, 273.692 euroko zenbatekoarekin. Zenbateko hori hilabete horretako nominaren guztizkoaren ehuneko 78 da. Honako hauek izan dira aztertutako ordainsariak eta haien zenbatekoak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	190.147
Antzinasuna	29.096
Lanpostuko osagarria	20.548
Berariazko osagarria	15.127
Gradua	9.264
Bateraezintasun-osagarria	2.600
Arduraldi eskusiboko osagarria	2.293
Txandakako lanaldiaren osagarria	2.074
Mailako osagarria	1.616
Lanaldiaren luzapeneko osagarria	646
Arrisku-osagarria	281
<b>Guztira</b>	<b>273.692</b>

Aurreko azterketan egiaztatu dugunez, oro har, nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptuak bat datoz plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuetarako aurreikusitakoekin, eta koherenteak dira Udalak adierazitako antzinasun aitortuarekin.

Nominaren azterketan hauteman dugu hiru pertsona polizia-laguntzaile gisa aldi baterako kontratatuta daudela gutxienez 2012tik<sup>2</sup>; beraz, kontratazio horrek agerian jartzen du udaltzaingoari dagokionez Udalak beharizan egiturazkoak eta iraunkorrak dituela. Horri dagokionez, 2023an, Udalak plantilla organikoa aldatu zuen udaltzaingoko agenteen hiru lanpostu sortzeko, eta bi lanposturako deialdi bat –zabal daitekeena– onetsi zuen. Hautapen-prozesu hori abian da gaur egun.

Egin dugun fiskalizazio-lanaren ondorioz, gomendatzen dugu langile funtzionario eta administrazio-kontratadun langileendako enplegu-baldintzei buruzko akordio berriaren klausulak mugatzea –akordio hori negoziaziopean dago gaur egun– Udalaren eskumenekoak diren gaietara, 2017-2019 aldian aplikatutako akordioari dagokionez Ganbera honek jada gomendatu zuen moduan.

### Langileen arloko gomendioen jarraipena

Egokitzat jotzen dugu langileen arloari dagokionez Ganbera honek “Barañaingo Udala, 2017” txostenean egindako honako gomendio muntadun honi eustea:

<sup>2</sup> Kontratazio horien ondorioz ez da lanposturik sartzeko enplegu publikoa egonkortzeko prozesuetan, araudiak ez baitu jasotzen “udaltzain-laguntzailearen” lanpostu espezifikorik egotea.

• *Berrikus eta azter daitezela izen bera duten lanpostuetarako bi araubide juridiko desberdin egoteak ekartzen dituen ordainsari-diferentziak, eta, kasua bada, egokiak diren neurri zuzentzaileak hartzea.*

Aipatutako txostenean egindako honako gomendio honi jaramon egin dio Udalak:

- *Jardunbide egokiak ezartzea tokiko poliziako lanaldiaren kontrol eta jarraipenerako.*

### 3.2 UDALAREN KONTRATAZIO PUBLIKOA

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntak 5,26 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 30 egiten dute, xehetasun hauekin bat:

Artikularia	Aitortutako betebeharrak (2022)
Errentamenduak eta kanonak	38.677
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioak	271.195
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	4.842.438
Zerbitzuaren ondoriozko gastuen kalte-ordainak	109.011
<b>Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak, guztira (2. kapitulua)</b>	<b>5.261.321</b>

Bestalde, 2022ko inbertsio errealak gastuak guztira 1,82 milioi egin zuten. Kopuru horrek gastu guztien ehuneko 11 egiten du, jarraian azaltzen den moduan banatuta:

Artikulu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak (2022)
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunak lehengoratzeko inbertsioak	1.178.539
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsio berriak	586.572
Ezin ukituzko inbertsioetan egindako gastua	56.478
Lurrak eta ondasun naturalak	1.824
<b>Inbertsio errealak egindako gastua, guztira (6. kapitulua)</b>	<b>1.823.413</b>

Gure lana munta txikiko kontratuengatikoko araubide bereziaren bidezko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak aztertzea izan da.

Aztertu beharreko lagina hautatzeko, kontratatu diren kontratisten zerrenda eta kasuko gastuaren zenbatekoa lortu ditugu, bi gastu-kapituluengatikoko bakoitzerako. Hurrengo taulan, gastu-aurrekontuko 2. eta 6. kapituluengatikoko gastuen xehakapena erakusten da, lizitazio-prozeduraren bidez ala munta txikiko kontratuengatikoko araubide bereziaren bidez esleitu diren kontuan hartuta.

Kapitulua	Kontratista-kop.		Gastua (BEZa barne)	
	Lizitazio-prozedurarekin	Munta txikiko kontratuengatikoko araubide berezia	Lizitazio-prozedurarekin	Munta txikiko kontratuengatikoko araubide berezia
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	13	525 <sup>1</sup>	1.190.884	4.070.437
6. Inbertsio errealak	7	42 <sup>2</sup>	1.523.733	299.681

(1) Horietatik, 450ek ekitaldian 3.750 euro (BEZik gabe) baino gutxiagoko gastua dute.

(2) Horietatik, 38k ekitaldian 15.000 euro (BEZik gabe) baino gutxiagoko gastua dute.

Munta txikiko kontratuengatikoko araubide bereziaren bidez kontratatu diren kontratista guztietatik, honako lagin hau hautatu dugu:

Kapitulua	Kontratista-kop.	Gastua (2022)
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	28	3.305.855
6. Inbertsioengatikoko gastuak	4	182.750

Hautatutako laginek 2. eta 6. kapituluetan munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez izapidetutako gastuaren ehuneko 81 eta 61 egiten dute, hurrenez hurren.

### Munta txikiko kontratazioa

- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Egiaztatu dugu badirela munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez esleitutako kontratuak, nahiz eta horien balio zenbatetsiak gainditu egiten dituen araubide berezi horren erabilerrari ezarritako mugak. 2022an, prestazio horiengatik ordaindutako zenbatekoa 1,54 milioikoa da. Hona hemen xehetasunak:

Prestazioaren deskribapena <sup>1</sup>	Faktura-kopurua	Gastua (2022)
Gasaren eta elektrizitatearen hornidura	657	1.193.020
Telefonia-zerbitzuak	26	28.529
Muskulazio-gelaren kudeaketa	11	24.861
Udaltzainen ekipamendua	6	20.921
Fotokopiagailuen mantentze-lanak	138	16.942
Laguntza teknikoa ekitaldietan (auditorioa)	41	15.481 <sup>2</sup>
Garbiketarako materiala	113	14.623
Udal-langileendako jantziak	51	10.946
Ikastetxeetan irakurketa sustatzea	4	9.024
Arratoi-hiltzea eta intsektu-hiltzea	6	6.853
Dantza-klaseak	8	8.055
Hiriko koloniak	1	6.633
Poliziaren jakinarazpenak (zehapenak)	8	5.135
Teknikariak, txarteldegiko langileak eta aretozainak (auditorioa)	7	4.403 <sup>2</sup>
<b>Guztira</b>	<b>1.077</b>	<b>1.544.386</b>

(1) Prestazio bakoitza kontratista bakar batek ematen du, salbu eta ekitaldietarako laguntza teknikoaren kasuan (auditorioa), hiru hornitzailek ematen baitute.

(2) Gastua, azaroaren amaieraz geroztik.

Ekitaldietan laguntza teknikoa emateko prestazioei eta langile teknikoan, txarteldegikoan eta aretozainen prestazioei dagokienez, bi mota horiek Barañaingo Auditorioan ekitaldiak eta ikuskinak egitearekin lotuak, 2022ko azarora arte auditorioa kudeatzen zuen fundazioarentzat zerbitzu hori ematen zutenekin kontratatu dira. Udalak jakinarazi duenez, aipatu hornitzaileek orain arte segitu dute zerbitzu horiek ematen, eta aurreikusita dago 2024an kasuko lizitazioak egitea, zehaztuta dagoenean auditorioaren kudeaketaren antolamendu berria.

- 6. kapitulua: Inbertsioak

Kapitulu honetan egiaztatu dugunez, aztertutako gastuak ez zuen munta txikiko kontratueterako araubide bereziaz bestelako esleipen-prozedurarik behar, eta, beraz, behar bezala izapidetu zen.

- Kontratazioak argitaratzea

Udalak araudiarekin bat argitaratzen ditu Nafarroako Kontratazioaren Atarian munta txikiko araubide bereziaren bidez adjudikatutako kontratuak.

**Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak**

Udalak emandako informazioaren arabera, 2022an guztira 797.389 euro ordaindu ziren kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioengatik, kasuko kontratuak mugaeguneratuta baitzeuden. Hona xehetasunak:

Kontratuaren xedea	2022an ordaindu-tako gastua	Gastu metatua kontratua amaitu zenetik 2022/12/31ra arte	Kontratu-amaieraren data (luzapenak barne)
Haur-eskolen eta ikastetxeen garbiketa	625.221	2.177.533	2019/04/30
Beste instalazio batzuen garbiketa	65.039	197.277	2019/10/31
Eraikin-berokuntzaren eta -klimatizazioaren mantentze-lanak	43.322	136.559	2019/08/31
Hirigintzako aholkularitza	38.008	138.848	2018/12/31
Ibilgailuak eremu publikotik kentzea	20.360	51.922	2020/04/30
Polizia-ibilgailuaren "renting-a"	5.439	5.439	2022/07/31
<b>Guztira</b>	<b>797.389</b>	<b>2.707.578</b>	

Hirigintza-aholkularitzako kontratua ez zen 2022an lizitatu Udalak zerbitzua barneratzeari ekin ziolako, eta helburu horretarako, aparejadore lanpostu bat sortu zuen (262. NAO, 2022ko abenduaren 30ekoa). 2023an, hautapen-prozesu bat egin zuen lanpostu hori aldi baterako kontratazio bidez betetzeko izangai-zerrenda bat eratze aldera. Udalak jakinarazten duenez, 2024ko otsailean eskatu du Etxebizitza eta Eraikinak Zaharberritzeko Iruñerriko Bulegoaren zerbitzua zabalagotzea, hirigintza-alorreko beharriaz aurre egite aldera.

Gure ustez, gainerako prestazioak lizitatu egin beharko ziren.

2023an, Udalak beste instalazio batzuen garbiketa-kontratuak adjudikatu zituen, baita eraikinen berokuntza eta klimatizazioaren mantentze-lanen kontratua ere.

Txosten hau idaztearen unean, gainerako zerbitzuak kontratu-euskarri egokirik gabe ematen dira oraindik ere, kontratuak mugaeguneratuta daude-eta. Dena den, haur-eskolen eta ikastetxeen garbiketa-zerbitzuari dagokionez, aipatu behar da Udalak 2023an hasi zuela lizitazioa, baina arau-tze-plegua baliogabetu egin zuen Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak. Udalak emandako informazioaren arabera, gaur egun beste lizitazio bat prestatzen ari da. Bestalde, 2024ko otsailean, udalak iragarkia argitaratu du, ibilgailuak eremu publikotik kentzeko zerbitzurako kontratuaren lizitazioari buruzkoa<sup>3</sup>.

Gai horri buruzko gomendioak txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean adierazi dira.

**3.3 TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIETAKO GASTUAK**

2022an, transferentzia-gastuak 1,82 milioikoak izan ziren. Kopuru horrek gastu guztien ehuneko 10 egiten du, honela zehazturik:

	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak
Toki-entitatearen erakunde autonomoak	469.000	-
Toki-entitatearen erakunde publikoak eta merkataritza-sozietateak	250.000	100.000
Nafarroako Foru Komunitatea	93.900	-
Mankomunitateak	432.343	-
Enpresa pribatuak	100.612	-
Familiak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak	336.101	-
Kanpokoak	34.868	-
<b>Guztira</b>	<b>1.716.824</b>	<b>100.000</b>

<sup>3</sup> Aurkeztutako alegazio bat kontuan hartuta txertaturiko esaldia.



Udalak ez du Dirulaguntzen Plan Estrategikorik.

Zuzeneko ematearen araubidezko dirulaguntzak eta Udaleko talde politikoendako diru-zuzkidurak aztertu ditugu.

### Dirulaguntzen lagin baten azterketa

Udalak emandako informazioaren arabera, 2022an 143.632 euroko dirulaguntzak eman zizkien zuzeneko ematearen araubidearen bitartez 25 onuraduni,<sup>4</sup> jarraian zehazten den moduan:

Onuraduna	Aitortutako betebeharrak garbiak
"Akabar" Barañaingo Kabalkada Elkartea	25.000
Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa	20.000
Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Cáritas	16.000
Sahats fundazioa	13.500
Barañaingo Gizarte Plataforma	10.000
Barañaingo Jai Batzordea	10.000
Ezpelur Dultzaineroak elkartea	6.200
Barañaingo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa	6.100
Barañain Abesbatza elkartea	5.600
Barañaingo Txistulariak elkartea	3.750
Barañaingo Dultzaineroak elkartea	3.100
Arrebote kirol-elkarte pilotazalea	3.000
Anfas	3.000
Barañaingo Trikitilariak elkartea	2.900
Barañain BHI	2.157
Barabatiu Batukada elkartea	1.800
Barañaingo Pueblo Viejo Kantu Elkartea	1.800
Harizti Barañaingo Dantza Taldea elkartea	1.600
Barañaingo Bertso Eskola elkartea	1.500
Barañaingo Canciones de Siempre elkartea	1.400
Barañaingo Euskal Kantak elkartea	1.350
Barañaingo Santa Mariaren auroroak	1.200
Barañaingo Jaiotzazaleen Elkartea	1.100
Iruñerriko Udaltzaingoak	1.000
Sustraiak elkartea	575
<b>Guztira</b>	<b>143.632</b>

Zazpi dirulaguntzako lagin bat aztertu dugu, guztira 79.300 euro; hau da, dirulaguntza guztien ehuneko 55. Hauexek dira:

Onuraduna	Aitortutako betebeharrak garbiak
"Akabar" Barañaingo Kabalkada Elkartea	25.000
Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Cáritas	16.000
Sahats fundazioa	13.500
Barañaingo Gizarte Plataforma	10.000
Barañaingo Jai Batzordea	10.000
Arrebote kirol-elkarte pilotazalea	3.000
Barañaingo Pueblo Viejo Kantu Elkartea	1.800
<b>Guztira</b>	<b>79.300</b>

<sup>4</sup> Udalaren mendeko entitateei eginiko ekarpenak ez daude sartuta.

Aurreko azterketatik ondorioztatu dugu dirulaguntza horiek araudiaren arabera eman eta kudeatu direla. Hala ere, honako akats hauek aipatu behar ditugu:

- Dirulaguntza izendunen emateak ez dira argitaratu Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.
- 'Sahats Fundazio'ari emandako dirulaguntzaren justifikazioan jardueraren kostu gisa sartzen da onuradunaren langileria-gastuen parte bat, eta gastu horiek egozteko irizpideak ez daude jasota ez hitzarmenean ez dirulaguntzaren frogagiritan.

### Udaleko talde politikoentzako diru-zuzkidurak

2022an, udal-taldeentzako diru-zuzkidurek 22.506 euro egin dute, jarraian xehatzen denez:

Udal-taldea	Zinegotzi kopurua	Diru-kopuru finkoa	Diru-kopuru aldakorra	Diru-kopurua 2022an, guztira
Navarra Suma	8	864	6.928	7.792
EH Bildu	5	864	4.330	5.194
PSN-PSOE	5	864	4.330	5.194
Geroa Bai	2	864	1.732	2.596
Podemos – Ahal Dugu	1	864	866	1.730
<b>Guztira</b>	<b>21</b>	<b>4.320</b>	<b>18.186</b>	<b>22.506</b>

Zuzkidura horien zenbatekoa 2019ko uztailaren 4ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez ezarri zen.

Honako hauek osatzen dute talde bakoitzak urtero jasotzen duen diru-kopurua: talde bakoitzeko 864 euroko alderdi finkoa eta taldekide bakoitzeko 866 euroko alderdi aldakorra.

Zuzkidura horiek aztertuta, honako alderdi esanguratsu hauek azpimarra ditzakegu:

- Esleituriko zenbatekoak taldeek adierazitako banku-kontuetara transferitzen dira, eta kasuko taldea ez da behartzen IFK eta banku-kontu berekia edukitzera, dagokion alderdi politikoarenez bestelakoak direnak. Egiaztatu dugu gutxienez bi udal-taldek ez dutela IFK eta banku-kontu berekirik.
- Udalaren araudia zuzkiduren zenbatekoa zehaztera mugatzen da. Ez ditu zehazten taldeek kontabilitatearen eta kontu-ematearen arloan dituzten betebeharrak.
- Udalak jakinarazten duenez, Osoko Bilkurak ez du inoiz eskatu kontabilitate-aurkezpenik, nahiz eta taldeak behartuta dauden kontabilitatea mantentzera, hala dioenez Toki-araubidearen Oinarrii buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (aurrerantzean, TAOL). Era berean, kontu-hartzaileak ez du horri buruzko inolako egiaztapen-urratsik egin.

Aintzat hartu behar da diru-zuzkidura horiek izaera finalista dutela, eta xede dutela taldeen funtzionamendua erraztea haien udal-jarduera korporatiboan; eta, funts publikoak diren aldetik, horien erabilera justifikatuta eta fiskalizatuta egon behar dela. Ildo horretan, Toki-araubidearen Oinarrii buruzko Legeak udal-taldeak behartzen ditu berariazko kontabilitatea egitera eta hura Udalbatzaren eskura jartzera, hark eskatutakoan.

Egin dugun fiskalizazioaren emaitza gisa, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuez gain, honako hau gomendatzen dugu:

- "Sahats Fundazio"ari emandako dirulaguntzaren hitzarmen arauemailean eta frogagiritan zehaztuta uztea diruz lagundutako jarduerari kostuak egozteko irizpideak.
- Dirulaguntza izendunen ematea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.
- Udal-taldeei eskatzea IFK eta banku-kontu berekiak aurkez ditzaten, kasuko alderdi edo koalizio politikoarenez bestelakoak eta independenteak, zuzkidura horiek jasotzeko.

### 3.4 “NEXT GENERATION EU” FUNTSAK

Europar Batasunak erabaki zuen baliabideak helaraztea estatu kideei “Next Generation EU” funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtu eta ekonomiaren suspertzeari bultzada emateko.

2021-2022 aldian, Udalak 865.189 euro jaso ditu funts horietatik, eta kasuko proiektuetan guztira 803.999 euro gastatu ditu.

Honako hauek dira funts horiekin finantzatutako proiektuak:

- “Obrak Merkataritza etorbidean (II. Fasea)”, guztira 1,23 milioiko gastu aurreikusiarekin. Proiektu honetarako “Next Generation EU” funtsak Estatuko Administrazio Orokorren bidez jaso dira.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala, guztira 2.909 euroko gastu aurreikusiarekin. Proiektu honetarako “Next Generation EU” funtsak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren bidez jaso dira.

Udalak emandako informazioaren arabera, honako hauek dira proiektu horietako diru-sarrerak eta gastuak:

Diru-sarrerak	AEG (2021)	AEG (2022)	Guztira 2022/12/31n
Obrak Merkataritza etorbidean (II. fasea)	-	907.515	907.515
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala	-	3.050	3.050
<b>Guztira</b>	<b>-</b>	<b>910.565</b>	<b>910.565</b>

Gastuak	ABG (2021)	ABG (2022)	Guztira 2022/12/31n
Obrak Merkataritza etorbidean (II. fasea)	-	801.090	801.090
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala	1.963	179	2.909*
<b>Guztira</b>	<b>1.963</b>	<b>801.269</b>	<b>803.999*</b>

(\*) 2020an exekutatutako 767 euroko gastua barne hartzen du.

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

*MARÍA LECUMBERRI BONILLA andrea, Barañaingo Udaleko alkatea, jakinarazpenetarako helbidea Barañaingo (Nafarroa) Udaletxe plazan, z.g., duena, 72.704.6838 NAN zenbakiduna, BARAÑAINGO UDALAREN izenean eta haren ordezkari gisa,*

*Ikusirik Barañaingo Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko behin-behineko txostena, 2024ko otsailaren 15ekoa, Kontuen Ganberak 2024ko otsailaren 16an bidalia.*

*Ikusirik Udalak beharrezkotzat jotzen duela horri buruzko zenbait azalpen ematea Ganberak egindako gomendio jakin batzuez bezainbatean.*

*Idazki honen bidez, behin-behineko txosten horri egindako alegazioak aurkeztu ditu, Ganberak jasotzat eman ditzan:*

**ALEGAZIO-IDAIZKIA:****3\_1\_Langileen arloko gomendioen jarraipena****• Kontuen Ganberaren gomendioak:**

• Berrikus eta azter daitezela izen bera duten lanpostuetarako bi araubide juridiko desberdin egoteak ekartzen dituen ordainsari-diferentziak, eta, kasua bada, egokiak diren neurri zuzentzaileak hartzea.

**• Barañaingo Udalaren alegazioa:**

*“Langileen arloko gomendioen jarraipena” ataleko “izen bera duten lanpostuetarako bi araubide juridiko desberdin egoteak ekartzen dituen ordainsari-diferentziak berrikusteko eta aztertzeko beharra, eta, kasua bada, egokiak diren neurri zuzentzaileak hartzea” gomendioari dagokionez, toki-entitate honek aditzera ematen du ordainsari-diferentzia horien arrazoia dela, hain zuzen ere, Udaleko plantillan araubide juridiko desberdinak egotea: langile funtzionarioak, administrazio-kontratadun langileak eta lan-kontratadun langileak.*

*Ildo horretan, toki-entitate hau lanean ari da plantillari eragiten dioten alde horiek ezabatzeko. Dena den, eragozpen gisa aipatu behar da funtzionarioen eta administrazio-kontratadunen lan baldintzei eta ordainsariei dagokienez Udalak ezin dituela negoziatu honako hauetan araututako zertzeladak: Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako toki entitateetako langileei ere aplikatzekoa badena; Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenei buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua; eta, ordainsarien arloan, uztailako 158/1994 Foru Dekretua. Izan ere, bere eskumen-esparrutik kanpo egonen litzateke funtzionarioei eta administrazio-kontratadunei dagokienez.*

*Alderdi horiek direla-eta, oraindik ere zailagoa gertatzen da bi araubide juridikoak parekatzea ordainsariei eta gainerako lan-baldintzei dagokienez. Gainera, lan-kontratadun langileek eskuratutako eskubide gisa dituzte beren hitzarmen kolektiboan aitorturik dauden ordainsari-alderdiak eta lan-eskubide gehiago; beraz, lan-kontratadun langileek dagoeneko eskuratuta eta aitortuta dituzten eskubideen kaltetan ere ezin dira bi araubideak parekatu.*

*Hori horrela, Barañaingo Udala lanean ari da egokiak diren neurri zuzentzaileak hartzeko, baina aintzat hartu behar da Udalaren eskumen-esparruaz bezainbatean oztipoa duela langile funtzionarioen eta administrazio-kontratadunen alderdi jakin batzuk negoziatzeko.*

**3\_2\_Barañaingo Udalaren kontratazio publikoa.****• Kontuen Ganberaren gomendioak:**

*Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak; besteak beste, ibilgailuak bide publikotik kentzeko zerbitzuarena eta gas- eta elektrizitate-hornidurarena.*

• **Barañaingo Udalaren alegazioa:**

**1\_Ibilgailuak bide publikotik kentzea 20.360 51.922 2020/04/30.**

Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko urtarrilaren 15eko erabakiaren bidez, Barañaingo Udalak onetsi egin zuen –prozedura irekiaren bitartez– Barañaingo garabi-zerbitzuaren eta ibilgailuak kentzeko zerbitzuaren kontratazio-espeditzea, urtean 24.644,00 euroko zenbatekoaz –kopuru hori kontratuaren balio zenbatetsiari (BEZik gabe) dagokio– eta urtebeteko iraupenarekin, beste hiru urtez luzagarria (lau urterako balio zenbatetsia, 98.576,00 euro, BEZik gabe). Halaber, 2024ko otsailaren 18an Kontratazioaren Atarrian jarritako iragarkiaren bidez argitara eman zen lizitazio hori, zeina, gaur egun, enpresa lizitatzaille intesdunek eskaintzak aurkezteko fasean baitago (frogagiriak atxikita doaz: I. eta II. eranskinak).

**2\_Gas- eta elektrizitate-hornidura 6571.193.020.**

Estatuan, udalen kontratu-jarduera mugatua da, eta horrek eragotzi egiten du energiaren eta gasaren zerbitzuak lehia publikoaren bidez esleitzea. Hori guztia gertatzen da lizitazio horiek arautzen dituzten kontratuen agiriak egitea zailtasun eta konplexutasun tekniko handikoa delako; gainera, agiri horiek berehala zaharkituta geratzen dira merkatu oso aldakorretan izandako aldaketen ondorioz.

Hori dela-eta, Barañaingo Udalarentzat –baita Nafarroako udalerrri gehienentzat ere– oso zaila da betetzea Nafarroan kontratazioa arautzen duen egungo araudian, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean, ezarritako betebeharrak.

Udal honek ez ditu zerbitzu horiek lizitatu, oso konplexua eta zaila baita gas- eta elektrizitate-hornidurako zerbitzu-ematerako pleguak prestatzea. Horretarako, Nafarroako toki-entitateak administrazio eta erakunde desberdinen laguntzaren beharrean aurkitzen dira.

Gure aldetik, Barañaingo Udalak hainbat elkarteren laguntzarekin lan egingen du, hala nola Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioarekin eta Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioaren Zuzendaritzarekin, horiekin eta Nafarroako beste toki-entitate batzuekin elkarlanean gas- eta elektrizitate-horniduraren lizitazioen zailtasunaren arazoa konpontzeko. Izan ere, gaur egun Nafarroako toki-entitateok arazo horri aurre egin behar diogu Nafarroan dagoen kontratu-araudia zintzoki betetze aldera.

**3\_3\_Udalaren transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak.**

• **Kontuen Ganberaren gomendioak:**

• Udalak ez du Dirulaguntzen Plan Estrategikorik:

• Udal-taldeei eskatzea IFK eta banku-kontu berekiak aurkez ditzaten, kasuko alderdi edo koalizio politikoarenez bestelakoak eta independenteak, zuzkidura horiek jasotzeko.

• **Barañaingo Udalaren alegazioa:**

• Udalak ez du Dirulaguntzen Plan Estrategikorik:

Dirulaguntzen Plan Estrategikorik ez edukitzeari dagokionez, 2023ko azken hiruhilekotik, eta Kontuen Ganberak gomendio hau egin aurretik, Udalak aurretiazko lanak egin ditu dirulaguntzak kudeatzen dituzten Barañaingo Udaleko alor teknikoekin, plan estrategikoa oneste aldera. Aurreikuspenen arabera, hiru hilabeteko epean onetsiko du hori Udalaren Osoko Bilkurak.

• Udal-taldeei eskatzea IFK eta banku-kontu berekiak aurkez ditzaten, kasuko alderdi edo koalizio politikoarenez bestelakoak eta independenteak, zuzkidura horiek jasotzeko.

Aurreikusitakoari dagokionez, Udalak dagoeneko baditu udal-ordezkaritza duten alderdi eta elkarte guztien IFK eta banku-kontuak, CONTIGO-ZUREKIN UDAL TALDE POLITIKOaren IFK eta banku-kontua eta PSN-PSOE UDAL TALDE POLITIKOaren izenean dagoen banku-kontuaren zenbakia izan ezik. Udal honek horiek guztiak eskatu zituen 2024ko otsailaren 23an, eta laster izanen ditu eskura (III. eta IV. eranskinetan erantsi dira frogagiriak).

Barañainen, 2024ko otsailaren 26an

Alkatea: María Lecumberri Bonilla

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Aurkeztutako alegazioengatik eskerrak ematen dizkiogu Barañaingo alkateari.

Gure ustez, Ganbera honek egindako gomendioen ildotik Udalak egindako jardueren azalpenak dira horiek, bai eta gomendio horiei erantzuteko kontuan hartu behar diren zailtasun batzuenak ere; baina ez dute eraginik gomendio horien egokitasunean, eta ez dute eragozten horiek betetzea.

Behin-behineko txostenaren edukia aldatu dugu 3.2.1. alegazioaz bezainbatean bakarrik –ibilgailuak bide publikotik kentzeko zerbitzuaren lizitazioari buruzkoa–. Alegazio hori udalak auditoretza-epearen ondoren egindako jarduketa bati badagokio ere, fiskalizazio-txostenaren 22. orrialdean txertatu dugu emandako informazioa.

Aurkeztutako alegazioak behin betiko txostenean txertatu dira.

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador



